## Videoteca de Baketik, el Centro por la paz de Arantzazu

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Magnolia

## Ficha técnica

TITULO ORIGINAL: Magnolia.

AÑO: 1999.

DURACIÓN: 188 min.

PAÍS: Reino Unido.

DIRECCIÓN: Paul Thomas Anderson.

REPARTO: Julianne Moore, Tom Cruise, Jeremy Blackman, Melinda Dillon, Philip Baker Hall, Philip Seymour Hoffman, Ricky Jay, William H. Macy, Alfred Molina, John C. Reilly, Jason Robars, Melora Walters, Clark Clegg.

PRODUCCIÓN: New Line Cinema.

## Sinopsis

La película sigue muy cerca nueve tramas paralelas, el punto en común de las cuales es el lugar donde suceden: el Valle de San Fernando. Un niño prodigio, el presentador de un concurso de televisión, un ex-niño prodigio, un moribundo, su hijo perdido, la mujer, el enfermero del moribundo, una cocainómana y un policía; historias aparentemente independientes con un extraño sentido conjunto.

## Temática

Arrepentimiento, perdón y vida

**Arrepentimiento**. La película describe el peso del pasado y la necesidad de vivirlo y afrontarlo con autenticidad de forma que abra cauce al arrepentimiento si fuera necesario.

**Perdón**. La historia narra la necesidad de perdonar y de ser perdonados como consecuencia de un proceso de autocrítica honesto y doloroso pero liberador.

**Vida**. Muestra la vida como algo incontrolable y en la que cuando está en juego lo esencial puede resultar extraña, llena de sorpresas e incomprensible.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no sólo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**…y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre el pasado:¿cómo abordar los errores o lo agravios? ¿Qué podemos hacer?
·Sobre el perdón: ¿qué implica perdonar o pedir perdón?
·Sobre lo humano: ¿qué esperamos de la vida y de nuestros seres queridos? ¿Qué les pedimos?

**…después de la película**

·El niño prodigio, el presentador de televisión, su hija, el ex-niño prodigio, el moribundo, su hijo perdido, la mujer, el enfermero del moribundo y el policía; ¿qué les ocurre?, ¿qué les hace falta?; ¿qué les hace cambiar?
·«Quizás hayamos acabado con el pasado pero el pasado no ha acabado con nosotros», ¿qué quiere decir esta afirmación?
·El moribundo y el policía dicen «No dejes que nadie te diga que no debes arrepentirte de nada. ¡Usa el arrepentimiento!»; «Podemos perdonar, es lo más duro de ir por la vida». ¿Qué quieren decir?

Con la colaboración de Begoña Gómez.

baketik arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa
Centro por la paz
Elaboración ética de conflictos

**zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Magnolia




baketik arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa
Centro por la paz
Elaboración ética de conflictos

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria

943-251005
www.baketik.org

# Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Magnolia

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Magnolia.

URTEA: 1999.

IRAUPENA: 188 min.

HERRIALDEA: Britainia Handia.

ZUZENDARIA: Paul Thomas Anderson.

AKTORE-ZERRENDA: Julianne Moore, Tom Cruise, Jeremy Blackman, Melinda Dillon, Philip Baker Hall, Philip Seymour Hoffman, Ricky Jay, William H. Macy, Alfred Molina, John C. Reilly, Jason Robars, Melora Walters, Clark Clegg.

EKOIZPEN-ETXEA: New Line Cinema.

## Sinopsia

Bederatzi argumentu paralelo islatzen ditu pelikulak, eta guztiek komunean duten ezaugarria gertatzen diren tokia da: San Fernandoko bailara. Haur prodijio bat, telebistako lehiaketa bateko aurkezle bat, haur prodijio izandako bat, hilzorian dagoen gizon bat, galdutako haren semea, haren emaztea, hilzorian dagoen gizonaren erizaina, kokainazale bat eta polizia bat. Itxuraz independenteak diren istoriek biltzen dituen zentzu bitxia dute.

## Gaia

Damua, barkamena eta bizitza

**Damua**. Iraganaren pisua eta, beharrezkoa balitz, damuari bidea irekiko dion egiazkotasunez iragan horri aurre egiteko beharra deskribatzen du pelikulak.

**Barkamena**. Norberak bere buruari egindako kritika zintzoaren eta mingarriaren, baina aldi berean askatzailearen, emaitza gisa ezinbestekoa den barkatzeko eta barkatuak izateko beharra kontatzen du filmeak.

**Bizitza**. Bizitza kontrolatu ezin daitekeen zerbait bezala ageri da pelikulan, zeina, oinarrizkoena kolokan jartzen denean, bitxia, sorpresaz beterikoa eta ulertezina den.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikusi eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Lehen pertsonan esanguratsu egiten zaigun horri buruz hausnartzea, eta gure bizitzan bertan sortarazten dizkigun galderei buruz. Helburua ez da betirako erantzunak bilatzea, sortarazten dizkigun erresonantziei so egitea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edo eta familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea.

**...ez bakarrik buruarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak edo aurrez ditugun ideiak albo batera uztea, pelikulak kontatzen digun harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**eta denbora baten buruan, berriz pentsatzea...** Egun batzuetara pelikulak uzten digun arrastoari adi egon. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartzen duen protagonismoak bat egitearen ondorioa da.

## Zenbait galdera...

**...pelikula ikusi aurretik**

...pelikula ikusi aurretik:

·Iraganari buruz: Nola egin aurre akatsei edo bidegabekeriei? Zer egin dezakegu?

·Barkamenari buruz: Zer dakar barkatzeak eta barkamena eskatzeak?

·Gizatasunari buruz: Zer da bizitzarengandik eta gure pertsona maiteengandik espero duguna?

**...pelikula ikusi ondoren**

·Haur prodijioa, telebistako aurkezlea, haren alaba, haur prodijio izandakoa, hilzorian dagoen gizona, galdutako haren semea, haren emaztea eta erizaina eta polizia; Zer gertatzen zaie? Zer behar dute? Zerk aldarazten die?

·«Agian iraganarekin amaitu dugu, baina iraganak ez du gurekin amaitu». Zer esan nahi du esaldi horrek?

·Hilzorian dagoen gizonak eta poliziak «Ez utzi inork ezertaz damutu behar ez zarela esan diezazun. Erabil ezazu damua!»; «Barkatzeko ahalmena dugu, horixe da bizitzak duen gogorrena» diote, hurrenez hurren. Zer esan nahi dute?

Begoña Gomezen laguntzarekin.

baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz Elaboración ética de conflictos

Cine para **vivir y convivir**

# Magnolia




baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz Elaboración ética de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria

943-251005 www.baketik.org